

JARDUERA

Gure produktuaren funtsezko jarduera ekoizpena da, hau da, lehenagotik sortuta dagoen teknika bat automatizatzean datza. Gure kasuan, ilea garbitzeko makina automatikoa diseinatzeko eta ekoizteko betekizuna duena.

Garrantzitsua da enpresaren denda fisikoa kudeatzeko, mantentzeko eta sustatzeko jarduera. Zehazki bi langile egongo dira denda fisikoan eta komertzial bat izango dugu ile apaindegietara joango dena gure produktua saltzen eta jarraipena egiten, horrela, bezeroak segurtasuna sentitu dezaten.

Gure produktua osatzeko materiala, hainbat enpresekin kontaktuan jarri ostean, segurtasun handiena eta ekonomikoki egokia den enpresarekin hitzartuko dugu gure eskaintza. Gure produktuaren materiala, termoplastikoarekin egindako kaskoa izango da. Kasko barruko pintzak, silikonazkoak izango dira, bezeroaren buruan ez dezan minik egin. Bukatzeko, banatzaileak eta hodiak plastikozkoak izango dira.